



laborantzak: Mahatsondoa

Landare-osasuna



Landare-osasunearen inguruko 43/2002 Legeak, (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2002-22649>) **landare-ekoizpenean gertatzen diren izurrien kontrako** markoa ezartzen du.

Mahatsondoen izurriak

Hauek dira mahastiei eragiten dieten **izurri nagusiak**:

1. **Mordoen sitsa**
2. **Armiarma horia**
3. **Pirala**
4. **Akariosia**
5. **Altica**
6. **Har grisak**
7. **Erinosia**
8. **Eltxo berdea**

Mahatsondoen izurrien informazio gehiago (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/izurriteak-etatasunak/mahatsondoa/#mahatsondoenizurriteak>)

Mahatsondoen gaixotasunak

Hauek dira mahastiei eragiten dieten **gaixotasun nagusiak**:

1. **Mildiua**
2. **Oidioa**
3. **Usteldura grisa**

Mahatsondoen gaixotasunen informazio gehiago (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/izurriteak-etatasunak/mahatsondoa/#mahatsondoengaixotasunak>)

Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria



Irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuaren (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2012-11605>) bidez ezartzen da produktu **fitosanitarioen erabilera jasangarria** lortzeko jarduketa esparrua.

1311/2012 EDaren alderdi nabarmenak (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/produktu-fitosanitarioen-erabilera-iraunkorra/>)

ELIKAk fitosanitarioen atala (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/>)

Kontrol Ofiziala



Europako araudiak Europar Batasuneko estatu kide guztiei ezartzen die **Kontrol Ofizialerako Planak egiteko betebeharra**, bat etorri Kontrol Ofizialei buruzko 882/2004 (EE) (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2004-81110>) eta 2017/625 (EB) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX%3A32017R0625>) Erregelamenduekin.

Erregelamendu horien arabera, europako Estatu bakoitzak hainbat urtetarako **Plan Nazionala** burutu eta indarrean jarri beharko du. Elikagai eta pentsuen segurtasunaren eta kalitatearen arloko legezko eskakizunak betetzeko plana dela esan daiteke. Estatu mailan, **Elikakatearen Kontrol Ofizialerako III. Plan Nazionala 2016-2020** indarrean dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai eta pentsuen kontrol ofizialaz arduratzen diren agintaritza guztiek elkarren artean koordinatzeko dituzten beharrei erantzuteko, **Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2016-2020** osatu da.

Kontrol Ofizialaren atala - ELIKA (<https://nekazaritza.elika.eus/kontrol-ofiziala/>)

Kutsatzaileak

Plagiziden Hondakinen Gehieneko Mugak



LMRa elikagaietan eta pentsuetan legez toleratzen den plagiziden hondakin kopuru handiena da, 396/2005 (EE) Araudiarekin (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:32005R0396>) bat etorri ezarritakoa.

Plagizidak uztetan erabiltzeak hondakinak sortzea ekar dezake; hau da, **produktu fitosanitario bat erabiltzeagatiko hondakinak**, horien **metabolitoak eta euren degradazioaren edo erreakzioaren ondoriozko produktuak** barne.

Plagiziden hondakinei buruzko informazio gehiago (<https://nekazaritza.elika.eus/lo/fitosanitarioak/#plagizidenhondakinak>)

Mahatsendoen kasuan, produktu fitosanitarioen hondakinen gehieneko mugak ondorengoak dira:

LMR Mahatsendoak - Europar Batzarreko datu basea (<http://ec.europa.eu/food/plant/pesticides/eu-pesticides-database/public/?event=product.resultat&language=EN&selectedID=36>)

Zenbait kutsatzailerren mugak



Mahatsendoen mikotoxina eta metalastunak Batzordearen 1881/2006 Araudian (EE) (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=celex:32006R1881>) daude araututa, eta horren bidez zehazten da elikagai produktuetako kutsatzaile jakin batzuen gehienezko edukia.

Okratoxina A (OTA)

Okratoxina Ari (OTA) dagokionez, zerealen ondoren ardoa da OTaren eguneroko ingesta nagusia dakarren elikagaia. Mahatsetan dagoen OTA transmititu egin daiteke mahatsetatik ardora, berau egiten den bitartean.

Ikerketa gehienetan atzeman da **OTaren mailak altuagoak direla ardo beltzean ardo gorrian baino, eta horien ondoren daude ardo zuriak**; izan ere, muztioa mahatsaren patsarekin beratzen da, eta horrek erraztu egin dezake horietatik OTA ateratzea.

Mahatsendoen kasuan, zenbait kutsatzailerren gehienezko edukiak 1881/2006 Araudian atxikitutako tauletan aurkitu daitezke:

Kutsatzailerren gehieneko edukia - (CE) 1881/2006 Araudia (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:32006R1881>)

+ Okratoxina Ari buruzko informazio gehiago

Muga mikrobiologikoak



2073/2005 zenbakiko Araudiak (EE), (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32005R2073>) **irizpide mikrobiologikoei** buruzkoak, **elikagaien muga mikrobiologikoak** ezartzen ditu.

Listeria monocytogenes

2073/2005 zenbakiko Araudiak (EE), irizpide mikrobiologikoei buruzkoak, ***Listeria monocytogenes*** ardoaren kasuan aipatzen du 1. kapituluaren.

***Listeria monocytogenes* eta beste zenbait kutsatzaileren kasaun gehienezko edukiak** 2073/2005 Araudiko I. Dokumentu Atxikituan aurkitu daitezke:

Elikagaien xede mikrobiologikoak - (CE) 2073/2005 Araudia (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32005R2073>)

+ Muga mikrobiologikoei buruzko informazio gehiago

Trazabilitatea



Trazabilitatea (<https://wikia.elika.eus/index.php?title=Trazabilitatea>), **elikagai jakin baten jatorria eta ibilbidearen etapa guztiak** (biltzea, ekoiztea, egitea, biltegitratzea, banatzea...) berreraikitzen ahalbidetzen duen tresna da. 178/2002 Araudiak (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/ALL/?uri=CELEX:32002R0178>) ezarten ditu trazabilitateak bete beharrekoak.

Nekazaritza ustiategiek **identifikatu egin beharko dituzte euren zuzkitzaile edo hornitzaileak zein bezeroak, eta informazio horren erregistro sistema izan beharko dute.**

Trazabilitateari buruzko oinarrizko informazioa (<https://nekazaritza.elika.eus/trazabilitatea/>)

Ardo-produktorearen trazabilitatea



Errioxa ardoa produzitzea zuzenduak daueden ustiapenek aplikatu beharreko trazabilitate neurriak, "Errioxa" Jatorri-Izendapen Kalifikatua araupetzen duen Batzordearen APA/3465/2004 Aginduaren (https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2004-18384) baitan dago.

APA/3465/2004 arauak (https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2004-18384) ondorengoa ezartzen du:

- Batzorde erregulatzaileak mahastien titular inskribatuei igorriko die dagokien **mahastizain-txartela**, pertsonala eta eskualdaezina. Bertan **erregistratuko dira egindako sarrerak**, eta kontrol-tresnaren balioa izango du. Horretarako, **derrigor erabili beharko da egiten diren emakida eta, halakorik balego, salmenta guztietan.**
- Txartel horrek lotu egiten ditu mahastizaina (pertsona fisikoa zein juridikoa izan) eta titular gisa lotuta duen **mahats-ekoizpenaren potentziala, Mahastien Erregistroan** inskribatutako azalerarekin bat etorritz.
- **Sistema** horrek **ahalbidetu egiten du upategiak jatorria eta iturria identifikatu ahal izatea, mahatsaren sorta ematen denean.** Bestalde, **batzorde erregulatzaileei ahalbidetu egiten die jatorri-izendapenari buruzko datu guztiak ezagutzea.**
- Mahastizainek eguneratuta izan beharko dute **landa-koadernoak edo ustiategiko koadernoak.**
- **Ustiategian egiten den tratamendu bakoitzerako**, honako informazio hau zehaztu behar da: aplikatzailearen eta, halakorik badago, aholkulariaren identifikazioa; erabilitako makinaren edo tratamendu-ekipoaren identifikazioa; bidezkoa denean, erregistro-zenbakiaren adierazpena; tratamenduaren efikaziari buruzko balorazioa; tratamenduaren data; kontrolatu beharreko izurritea; lursailaren identifikazio-zenbakia; laborantza; azalera; aplikatutako produktua; produktuaren kilogramo edo litroak; eta bidezko bestelako oharrak.

+ Mahastizaintzan trazabilitatea aplikatzeko gidak

+ Mahastizaintzan trazabilitatea aplikatzeko informazio gehiago

Erregistroak eta Administrazioaren baimenak

Nekazal-jarduera baten garapenak, ustiategian burutzen diren jardueren arabera, erregistro desberdinen izen-ematea baldintza du. **NEEO, EOEO, TOEE** eta **NMEO** dira erregistro nabarmenenak.

Mahastizaintzaren erregistroa



Euskal Autonomi Erkidego mailan, mahastizaintzaren sektorea 5/2004 Araudia (http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-contfich/eu/contenidos/ley/bopv200402678/eu_def/index.shtml)ren bitartez antolatuta dago. Estatu mailan, 1338/2018 ED (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2018-14803&p=20181030&tn=1>)ak arautzen du, eta europa mailan (UE) 2018/273 Araudiak (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/es/TXT/?uri=CELEX:32018R0273>).

Mahastizaintzaren erregistroa erregistro ofizial bat da, eta bertan inskribatuko dira mahastizaintzako jarduera eta espediente guztiei lotutako jarduerak guztiak.

Euskadiko mahastizaintza-erregistroa **lurralde historiko bakoitzeko mahastizaintza-erregistroek eratuko dute**, eta horiek guztiak datu-base berean sartuko dira.

Foru-aldundiek kudeatu eta eguneratuko dute euren lurraldeari dagokion mahastizaintza-erregistroa. Bertan, sail bakoitzetik bereizita jasoko dira **honako hauei buruzko datuak: azalera, kokapena, landatutako barietatearen eta erabilitako mentagaiaren adierazpena. Orobat, kalitatezko ardo batean inskribatuko da.**

Araudi hori betetzeko, **mahastizainak** gauzatu beharreko **oinarrizko eta nahitaezko izapideak** honako hauek dira:

- **Erauzteko eskaera**, mahasti bat erauzi aurretik egingo dena. Izapidetzea eta onespena ematea ustiatagia dagoen lurraldeko foru-aldundiaren eskumenak dira. Eskaera horrek sortu egiten ditu lursail horretan edo beste batean (horrenbesteko azalera duena) mahatsa birlandatzeko eskubideak.
- **Landatzeko baimena**. Lursail batean mahatsa landatu edo birlandatu aurretik eskatzen da; zehazki, ustiatagia dagoen lurraldeko foru-aldundiari eskatzen zaio, eta horrek izapidetzen du. Baimenak lotura du birlandatzeko eskubideak edukitzearekin, landatze berria edo landatze esperimentalak egiteko baimena lortu ahal izatea salbu.
- **Uzta-aitorpena**, mahatsaren ekoizleek urtero aurkeztu behar dutena.
- **Mahastiaren aldaketak**: Inskribatutako edozein lursailetan egindako aldaketa, erregistroa jakinaren gainean jarri beharko da. Eskaera-orri normalizatua erabiliko da. Aldaketak ondorengoak izan daitezke:
 - *Mahastiaren izen-aldaketa*: salerosketa, alekairu edo lagarpen baten ondorio, titular berriak dokumentu baten bitartez edo aurreko jabearen presentziaren bitartez akreditatu beharko du mahastiaren jabetza.
 - *Mahastiaren ezaugarrien aldaketa*: desberdintasunak edo aldaketak zuzenduko dira.

+ Erregistroak

Higienea eta Autokontrola



Elikagaien higieneari buruzko 852/2004 (CE) Araudi (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2004-81035>) orokorrarak **nekazaritza-ekoizpen primarioan aplikatu beharreko higiene-neurriak** ezartzen ditu.

ELIKako Higiena eta Autokontrola atalera sarbidea (<https://nekazaritza.elika.eus/higienea-eta-autokontrola/>)

+ Mahastizaintzako jardunbide egokien gidak

Ekoizpen sistemak

Gaur egun erabiltzen diren ekoizpen sistema garrantzitsuenak **Ekoizpen konbentzionala** -berez, Izurriteen Kudeaketa Integratua erabiltzea behartuta dago- **Ekoizpen Integratua** eta **Ekoizpen Ekologikoa** dira.

ELIKAKo Ekoizpen sistemak atalera sarbidea (<https://nekazaritza.elika.eus/ekoizpen-sistemak/>)

Babestutako Jatorri Izendapenak (BJI)



Mahatsondoa eta ardoaren Ley 24/2003 Arauak (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2003-13864>) eta 6/2015 Arauak (<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-5288>), artikulua batzuk indargabetzen duena, dira etstatu mailan BJl-ak arautzen dutenak. Europa mailan (UE) 1151/2012 (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=DOUE-L-2012-82546>) araudiaren arabera dago.

Babestutako Jatorri Izendapenak (BJI) dira **kalitate berezia** aitortzeko erabiltzen den sistemak, honako hauek aintzat hartzen dituztenak: **berezko ezaugarrien eta ezaugarri bereizgarrien** kariatara, **lehengaiak** ekoizten diren eta **produktuak egiten diren inguru geografikoa, eta prozesu horietan parte hartzen duen giza faktorearen eragina.**

Mahastiei eta ardoari buruzko 24/2003 Legeak honako hauek jasotzen ditu:

JATORRI IZENDAPENA (JI): herrialde, eskualde, udalerrri edo leku jakin bateko izena da, administrazioaren aitortpena jaso duena, honako baldintza hauek betetzen dituzten ardoak izendatzeko erabil daitekeena:

- **Herrialde, eskualde, udalerrri edo leku jakin batean ekoitziak izatea, bertako mahatsekin.**
- **Prestigio handia izatea** merkataritzaren trafikoan, jatorria dela eta.
- **Kalitatea eta ezaugarriak, funtsean edo eksklusiboki, inguru geografikoak ematea** (horren baitan daude natur eta giza faktoreak).
- Gainera, **gutxienez bost urte** igaro behar izan dira, **geografia-adierazpenaren bidez kalitateko ardo gisa aitortu zenetik.**

JATORRI IZENDAPEN KALIFIKATUA (JIK): jatorri-izendapenei eskatu ahal zaizkien betekizunak ez ezik, honako hauek ere bete beharko ditu:

- **Gutxienez hamar urte igaro izana** jatorri-izendapenaren aitortpena jaso zuenetik.
- **Merkaturatutako ardo guztia botilaratzea eremu geografiko mugatuan inskribatutako eta kokatutako upategietan.**
- **Kontrol-sistema bat izatea, ekoizten denetik merkaturatzen den arte,** kalitatea eta kopurua kontrolatzeko, barne hartuta kontrol fisikoa, kimikoa eta organoleptikoa, bolumen mugatuko sorta homogeneousen bidez.
- **Debekatuta dago upategi berean aldi berean JIK izateko eskubidea ez duten ardoak egotea,** lurraldean kokatutako ordainketa-ardo kalifikatuak direnean salbu.
- **Mugatze kartografikoa ezarri behar da,** udalerrriak, JIK jasotzeko eskubidea duten ardoak ekoizteko lursail egokietan.

“Errioxa” Jatorri Izendapen Kalifikatua banatu egiten da Ebro goienaren inguruko hiru probintzietan: Errioxan, Araban eta Nafarroan.

